

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Erlezaintza ustiategiak arautzen dituen zerga ordenantzaren behin betiko onarpena

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero erlezaintza ustiategiak arautzen dituen Zalduondoko Udaleko zerga ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon den arauzko epean, behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testua, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

ERLEZAINZA USTIATEGIAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

ARRAZOIEN AZALPENA

Erlezaintza nekazaritza ekoizpeneko sektore garrantzitsua da Arabako lurralde historikoan; izan ere, egia da badirela jarduera hau modu ez profesionalean garatzen dutenak, baina modu profesionalean horretan aritzen direnen kopurua nabarmena da.

Erlezaintza ustiategiek onura garrantzitsuak eragiten dituzte nekazaritzan, oro har; izan ere, erleek landareen polinizazio prozesuan laguntzen dute, baita produktibitate gutxi edo produktibitate gabeko lursailetan bat-batean sortzen diren lore baliabideak aprobetxatzen ere. Ildo beretik, balio handieneko zeharkako onura polinizazioa da; hala, erlauntzetan behar bezala kokatutako komunitateak lekuz alda daitezke laborantza lanak polinizatu behar diren lekuetara mugituz, loratze aldietan, eta betebeharra bete ondoren berriz hasierako tokira itzul daitezke; hala, fruitu eta hazietan ekoizpena areagotzea eta ezti uzta handiagoa izatea lortuko litzateke. Hortik dator, horrenbestez, ezti jardunak transhumantziarekin lotura estua izatea. Horrek denak jarduera arautu beharra justifikatzen du, eta, horrela, erlauntzak identifikatu eta zein ustiategiri dagozkion azkar eta eraginkortasunez jakiteko sistema homogenea lortuko da.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Ordenantza honen xedea Zalduondoko udal mugartean erlezaintza ustiategien antolaketa eta aprobetxamendu arauak ezartzea da, erlezaintza ustiategien osasun neurri eta neurri zooteknikoak aplikatzeko.

Bidenabar, erlauntzen kokapen, finkatze eta mugimendu baldintzak ere arautuko dira; horrela, posible izango da udalerrian erlezaintza jarduera zuzen eta eraginkortasunez garatzea.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek aplikagarriak izango dira:

- a) Erlekumea: ezti ekoizten duten erleen (*apis mellifera*) komunitatea da.
- b) Erlauntza: erlekumeak, erlekumea gordetzen duen edukiontzia eta bizirauteko behar dituzten elementu propioek osatzen dute. Hainbat motatakoak izan daitezke:
 - Finkoak: ezti orraze finkoak edo edukiontzitik banatu ezinik dituztenak dira.

– Mugikorrak: ezti orraze mugikorrak dituzte, eta banatu daitezke ezta biltzeko, garbitzeko, etab. Komunitatea hazteko moduaren eta, horrenbestez, erlauntzaren garapenaren arabera, bertikalak edo horizontalak izan daitezke.

c) Erlezaintza kokagunea: erletxea kokatzeko tokia, loreak aprobeitzatzeko edo negua igarotzeko.

d) Erletxea: erlauntz multzoa, titular batena edo gehiagorena, eta kokagune berean kokatutakoa. Hauetako bat izan daiteke:

– Erletxe abandonatua: erlauntzen ehuneko 50 baino gehiago hilik dituen erletxea.

– Erletxe hila: elementu bizien (intsektu helduak eta kumeak) jardun biologikorik ez daukan erlauntza.

e) Erlezaintza ustiategia: erlauntz guztiak kokatzeko lekua, erletxe batean edo gehiagotan banatuta, titular berberarenak, kokalekua edo helburua edozein dela ere. Hauetako bat izan daiteke:

– Erlezaintza ustiategi egonkorra: erlauntzak leku berean daude urte osoan zehar.

– Erlezaintza ustiategi transhumantea: urtean zehar erlauntzak leku batetik bestera mugitzen dituzte.

Bidenabar, integratzen dituzten erlauntzen kopuruari dagokionez erlezaintza ustiategiak honelakoak izan daitezke:

– Profesionala: 150 erlauntz edo gehiago dituena.

– Ez profesionala: 150 erlauntz baino gutxiago dituena.

– Autokontsumokoa: Mota honetan lortutako erlauntzetako produktuak soilik familia mailan kontsumitzen dira. Horrelako ustiategietako gehienezko erlauntz kopurua ezingo da 15 baino gehiagokoa izan.

f) Erlezaintza ustiategiaren titularra: erlezaintza jarduera garatu eta jarduera kudeatzeari lotutako arrisku eta erantzukizunak bere gain hartzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

3. artikulua. Erlezaintza ustiategien sailkapen zooteknikoa

Erlezaintza ustiategiak honela sailka daitezke:

1) Ekoizpenekoak: ezta eta beste erlezaintza produktu batzuk ekoizten dituzte (E).

2) Hautapen eta hazkuntzakoa: erleak hazi eta hautatzen dituzten erlezaintza ustiategiak dira (HH).

3) Nekazaritzako polinizaziokoak: ustiategi horien jarduera nagusia nekazaritza laboreetako polinizazioa da (NP).

4) Ingurune naturalaren polinizazioa: jarduera nagusia basa landaredia polinizatzea da, ingurune osoaren balio ekologikoa indartuz. (PN).

5) Mistoak: aipatutako sailkapen jarduera bat baino gehiago pareko garrantziarekin tartekatzen dituzte (MS).

6) Beste batzuk: aurreko ataletako sailkapenetara egokitzen ez direnak (BB).

II. KAPITULUA BAIMENAK

4. artikulua. Erlezaintza ustiategien erregistroa

Zalduondo udalerrian kokatutako erlezaintza ustiategi guztiak Arabako Foru Aldundiaren Erlezaintza Ustiategien Erregistroan inskribatu beharko dira nahitaez, erlauntz transhumanteei dagokienez ezarritakoa gorabehera (ikusi 3. kapituluko 10. artikulua).

5. artikulua. Lizentzia eskaera

Erlezaintza ustiategiaren erregistroan inskribatu eta gero, egokitutako ustiategi kodea udalari honetako udalari jakinaraziko zaio. Aipatutako jakinarazpena ezinbesteko betekizuna izango da erlezaintza jarduna garatu ahal izateko. Ustiategi kodeaz gain, jakinarazpenean honako hauek ageri beharko dira:

1. Kokapen eskaera; datu hauek eman beharko dira:
 - Titularraren datuak, IFZ, helbidea, posta kodea, udalerrria.
 - Erlauntzak kokatzeko datuak
 - Kokapen aldia: hasierakoa eta amaierakoa.
 - Erlauntz kopurua
2. Kokatu nahi den lurzatiaren jabearen baimena
3. Erantzukizun zibileko aseguruua.
4. Erlauntzak udalak horretarako zedarritutako eremuen barruan kokatu beharko dira.
5. Ordenantza hau indarrean sartu ondoren martxan jartzen diren kokaguneen kasuan, eta betiere gutxienez 26 erlauntz bizi baditu, gutxienez 1.000 metroko distantzia errespetatu beharko da, salbu eta jabe mugakideek idatziz eta berariaz beste zerbaitek adostu badute. Interes orokorreko programak aztertzea edo garatzea helburutzat duten ustiategiak salbuetsita geratuko dira. Halaber, erlezaintza ustiategiaren gutxienezko baldintzak errespetatu beharko dira, Erle ustiategiaren antolatzearen arauak ezarri zituen otsailaren 22ko 209/2002 Errege Dekretuko 8. artikuluan ezarritakoak.
6. Lizentzia eman izana ahalbidetu zuten datuetan edozein aldaketa gertatuz gero, ustiategiaren titularrak udalari jakinarazi beharko dio.
7. Erlezaintza kokaguneen baimenek urtebeteko indarraldia izango dute. Baimenak urtez urte luzatuko dira, betiere hasierako baimenarekiko ez bada aldaketa nabarmenik egin.
8. Debekatuta dago baimenak aldatzea, saltzea edo doan lagatzea, osorik zein partzialki, udalak ez badu alde aurretik horretarako baimena eman.
9. Erlauntz transhumanteen kasuan, lekualdaketen jakinarazpenak lekualdatu aurretik egingo dira, eta honako hau adierazi beharko da: kokagunearen hasierako eta amaierako data, eta kokalekua.
10. Erlezain batek baino gehiagok erletxeak instalatzeko data berbera badaukate, eta gertutasun arazoak tarteko aldi berean baimentzea ezinezkoa baldin bada, honako hauei lehentasunez emango zaizkie:

- Bertoko erlezainari, bertokoa ez denaren aurretik.
- Kokagunean antzinatasun handiagoa daukan erlezaina.
- Azken urteetan kokagunean hobekuntzak egin eta lurzatiaren sastrakak kendu dituen erlezainari.

6. artikulua. Erlezaintza kokaguneak onura publikoko mendietan

1. Zalduondoko udal mugarteko onura publikoko mendietan jarritako erlezaintza ustiategiak udalaren baimena izan beharko dute.
2. Zalduondoko onura publikoko mendietan jarritako erlezaintza aprobetxamenduak urteko baso espedientearen jasoko dira.
3. Onura publikoko mendietan jarritako erlezaintza aprobetxamenduek ordenantza honetan ezarritako araudia bete beharko dute.

III. KAPITULUA: APROBETXAMENDU ARAUBIDEA

7. artikulua. Erletxearen seinaleztapena

1. Erletxeak zuzen identifikatuta egoteko ardura erlezaintza ustiatetikiko titularrarena izango da, eta erleak daudela ohartarazi beharko du, erraz ikusteko leku batean eta gutxienez 20 metroko distantziatik.

2. Ohartarazpena ez da nahitaezkoa izango finka itxita badago eta erlauntzak gutxienez 25 metroko distantziara baldin badaude espaloitik edo finkaren itxituratik.

3. Kartelean erlauntzen identifikazio kodea ageri beharko da; ustiatetikiko bakoitzak kode propioa dauka.

4. Erletxearen seinaleztapen kartela edozein material aldagaitzez egin beharko da, eta atmosferako eragileekiko erresistentea izango da. Kartela lurretik 1,5 eta 2 metro arteko altuerara jarri beharko da, kartelaren beheko aldetik neurtuta; ongi ikusteko moduko leku batean jarri beharko da. Karteleko testua euskaraz eta gaztelaniaz ageri beharko da, eta "Atención abejas/Kontuz erleak" adierazi beharko da; letrak beltzak izango dira eta atzealdea, berriz, horia; tipografia librea izango da, eta karaktereek gutxienez 70 x 35 mm-ko neurriak (bertikala/horizontala) edo gehiagokoak izan beharko dute; proportzio berbera izan beharko dute.

5. Ustiatetikiko gehitutako erlauntz guztiak, dela material zaharra ordeztzeko, dela ustiatetikikoaren tamaina handitzeko, dela berriak gehitzeko, lehenago ezarritakoaren arabera identifikatuko dira.

8. artikulua. Lurzatiaren mantentze lanak

1. Ustiatetikiko titularrak eremua garbi izan beharko du, edozein ikuskaritza egiteko sarbide erraza izanik.

2. Erlezaintza ustiatetikiko bateko erletxe bakoitzak kasuan kasuko lurzattia pertsona eta animalien segurtasuna bermatuko duen egoeran izan beharko du, baita suteen aurka babesteko moduan ere.

9. artikulua. Transhumanteak

1) Erletxe transhumanteak udal mugarte barruko finka partikularretan kokatzeko ezinbestekoa izango da jarduera gutxienez 7 eguneko aurrerapenez udalari jakinaraztea.

2) Erlauntzak Zalduondoko udal mugartearen mugen barruan kokatuko dituzten transhumanteak adierazpen plaka propioa instalatu beharko dute. Plakan, ohartarazpenaz gain, ustiatetikikoari dagokion kodea (edo kodeak, hala badagokie) eta urte horretarako transhumantzia adierazle baliagarria ageri beharko dira. Jarduna udalari jakinarazi ondoren jarriko da identifikazio kartela. Jarduera udalari jakinarazi zaion urte horretarako baino ez da izango komunikazio hori baliagarria.

3) Arabako Lurralde Historikoaren eremutik kanpora egindako mugimenduei eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego edo estatu batetik iritsitakoei dagokienez, Erlezaintza antolatzeari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan ezarritakoari erreparatuko zaio.

4) Garraiatzerakoan, erlauntzetako atakak itxita joan beharko dute, eta ataka zabalik baldin badago, erleak ateratzea eragozten duen sare edo beste edozein sistema izan beharko dute.

10. artikulua. Erlezaintza ustiatetikiko gutxieneko baldintzak

1) Eraikuntza, instalazio, erreminta eta ekipamenduen antolaketak eta izaerak posible egingo dute uneoro eraginkortasunez garbitu, desinfektatu eta desparasitatu ahal izatea.

2) Udal mugartearen barruan, erlezaintza kokaguneek gutxieneko distantziak neurtu beharko dituzte hauekiko:

- 1. Izaera publikoko establezimendu komunitarioak eta hiriguneak, populazio guneak: 400 metro
- 2. Landa eremuko etxebizitza erabiliak edo abereen instalazioak: 100 metro lerro zuzenean.
- 3. Errepide nazionalak 200 metro, errepideen ertzei dagokienez.
- 4. Eskualde mailako errepideak 50 metro, errepideen ertzei dagokienez.
- 5. Auzoetako bideak: 25 metro ertzei dagokienez.
- 6. Baso pistak: erlauntzek ezingo dute bidea oztopatu.
- 7. Erletxeen arteko gutxieneko distantzia 350 metrokoa izango da.

Errepide eta bideetarako ezarritako distantziak ehuneko 50 murriztu ahalko dira erletxea aldapan badago eta bidearen horizontalarekiko bi metro baino gehiagoko desnibeleko altueran.

Distantziak gehienez ehuneko 75 murriztu ahalko dira erletxea elementuren batekin ingurata bada (heskaia, sarea edo beste batzuk), gutxienez 2 metroko altuerakoa, erletxearen eta erreferentziako elementuaren artean ezarritakoa (errepidea, bidea, etxebizitza...).

Erlauntz kopuru onargarria, udal mugartean, 80 erlauntzekoa izango da erletxe bakoitzeko.

- 8. Udalak baimen kopurua eta erlauntz kopurua mugatu ahalko ditu, zedarritutako zonak gehiegi ustiatzea saiheste aldera.

11. artikulua. Osasun kontrola

— Erlezaintza ustiatzearen titularrak ezarriko diren gaixotasunen aurkako osasun arau eta programak aplikatu beharko ditu eta horiei eutsi beharko die; aipatutako arau eta programak kontrol ofizialen mende egongo dira.

— Ustiatzea arriskuan jar dezakeen alterazio patologikoren bat antzemanaz gero, horren titularrak berehala jakinaraziko die Arabako Foru Aldundiko abeltzaintza zerbitzuei.

— Erlauntza onura publikoko mendietan zein lurzati pribatuetan ezartzeak osasun zerbitzuen osasun ikuskaritza jasotzeko aukera dakar, erletxea jarri aurretik.

12. artikulua. Ikuskaritza

Ordenantza honetan araututakoaren ondorioetarako, Zalduekiko Udalak beharrezkotzat jotako ikuskaritzak egin ahalko ditu erlezaintza ustiatzeak arautzeko eta antolatzeko araudian eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direla ziurtatzeko.

13. artikulua. Ongizate neurriak

Titularrak erleen beharrian fisiologikoak eta jokamolde beharrianak zaindu beharko ditu, osasun eta ongizate egoera onean egote aldera.

IV. KAPITULUA: ZERGA EGITATEA, SUBJEKTU PASIBOA, ZERGALDIA, SORTZAPENA ETA KUOTA

14. artikulua. Zerga egitatea

Udalerrri honetako jabari publikoen erabilera pribatiboak eta aprobetxamendu bereziak osatzen dute tasa honen zerga egitatea, udalaren jabetza diren mendiak erlezaintza ustiatze egiteko erlauntzekin okupatzen baitira.

15. artikulua. Subjektu pasiboa

Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikulua aipatutako pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak, jabari publikoa bereziki onura partikularrerako erabiltzen badute. Ordenantza

honetan arautzen den aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko zenbatekoa urteko kanon bat izango da, eta tasa izaera izango du. Kopurua aldizka berrikusiko du Osoko Bilkurak.

16. artikulua. Zerga kuota

Tasaren kopurua honela dago finkatuta:

- 0,50 euro erlauntz bakoitzeko.

17. artikulua. Zergaldia eta sortzapena

Zergaldia bat dator urte naturalarekin. Alkatetzak baimena ematerakoan sortuko da tasa, eta, nolana ere, aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa hasi aurretik.

V. KAPITULUA: ZEHAPEN PROZEDURA

18. artikulua. Arau hausteen sailkapena

Ordenantza honen arau haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

Honako hauek arau hauste arintzat joko dira:

a) Ordenantza honetan jasotako xedapenak ez betetzea edo falta arinak egitea, betiere larri edo oso larri gisa sailkatuta ez badaude.

Honako hauek arau hauste larriak izango dira:

- Aprobetxamendu lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Erlezaintza lanak egitea horretarako adjudikatu ez den zona batean.
- Ordenantza honen 11. artikuluan aurreikusitako distantziak ez zaintzea.
- Urtea bukatzerakoan bi arau hauste arin edo gehiago egin izana.

Honako hauek arau hauste oso larriak izango dira:

- Kokatutakoak baino erlauntza gutxiago aitortzea
- Urtea bukatzerakoan bi arau hauste larri edo gehiago egin izana.

19. artikulua. Zehapenen zenbatekoa

- Arau hauste arinen kasuan: 750 euroko isuna.
- Arau hauste larrien kasuan: 1.500 euroko isuna.
- Arau hauste oso larrien kasuan: 3.000 euroko isuna.

20. artikulua. Lizentzia kentzea

Honako kasu hauetan udalak lizentzia baliogabetu eta, hala, erlezaintza kokapena kentzeko agindua eman dezake:

- Titularrak baimena lortzeko betekizunak betetzeari uzten dionean.
- Titularrak kalteak eragiten dituenean lurzati mugakideetan edo jabeengan, hala salatu ondoren.
- Erlezaintza ustiatzean albaitaritza ikuskaritzak egitea eragozteagatik, edo erlauntzen osasun egoera zuzena ez bada.
- Arau hauste arin bi edo gehiago egiteagatik, edo gutxienez arau hauste larri edo oso larri bat urtean zehar.

Arau hausleak kokagunea hiru eguneko epean kendu beharko du; hala egiten ez badu, udalak egingo du, eta eragindako kostuak arau hausleak hartuko ditu bere gain.

Ustategiko titular baten lizentzia baliogabetu baldin bada aurreko kasuren bat dela medio, hurrengo urtean ez zaio lizentziarik emango.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren gaietarako Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Erlezaintza antolatzeari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan ezarritakoari erreparatuko zaio.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Udaleko Osoko Bilkurak udal ordenantza hau behin betiko onartu ondoren, ALHAOn behin betiko argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta hala egongo da harik eta aldaketa edo baliogabetzea onartzen den arte.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik existitzen ziren erlauntz guztiei dagokienez, tituluak identifikatu eta erregistratu egin beharko dira Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Erlezaintza antolatzeari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Ordenantza hau onartu ondoren erlauntzen batek ez baditu betetzen ordenantza honetan ezarritako baldintzak, orduan 6 hilabeteko tartea izango du horretarako.

Zalduondo, 2018ko otsailaren 16a

Alkate-lehendakaria
GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE